

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Hasierako onespena ematea eguneko arretarako landa zentroa arautzen duen ordenantzari**

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 30eko osoko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespena ematea eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen zerga ordenantzari.

Erabakia eta haren aurrekari guztiak jendaurrean egongo dira udaletxeko idazkaritzan, hogeita hamar egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, epe horretan interesa dutenek espedientea aztertu eta egokiak deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Erreklamaziorik aurkeztu ezean, eguneko arretarako landa zentroaren zerbitzua arautzen duen zerga ordenantza behin betiko onetsiko da, halaxe xedatzen baitu Toki Ogasunak Arautzen Dituen Legearen Testu Bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan.

Amurrio, 2021eko urriaren 15a

*Alkatea*

**JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA**